| <p>2.- Ondorengoak dira zuzendaritza-taldearen egitekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Ikastetxearen zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitze eta iharduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan zuzendariari laguntzea.</li> <li>b) Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-ihardueren, eskolaz kanpoko eta osagarrikoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua gauzatzea, ordezkari-organismo gorenak onar ditzan.</li> <li>c) Aurreko puntuan adierazitako programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea, eta horien betetze-mailaren berri ematea ordezkari-organismo gorenari urteko txostena onar dezan.</li> <li>d) Urteko txostenaren zirriborroa egitea, ordezkari-organismo gorenak eztabaida dezan.</li> <li>e) Ordezkari-organismo gorenari euskal eskola publikoko beste zenbait ikastetxerekin lan-kidetzaren harremanak izateko proposamena egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza-xedez, erakundeekin ituneak izenpetzeko proposamenak egitea, organo horrek, egoki baderitzo, hezkuntza-administrazioari aurkez diezazkion.</li> <li>f) Irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren ihardueretara atxikitze irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.</li> </ul> <p>3.- Aurreko atalkiko b) eta d) puntuetan adierazten diren egitekoak betetzeko, zuzendaritza-taldeko organo gorenak esku emandako batzorde baten partaidetza izango du. Antolakuntza eta ihardunekin araudiak organo gorenaren batzorde iraunkorra oharteman dezan kasuetan, batzorde horri emango zaio esandako dokumentuak egiteko ardura.</p> <p>Edonola ere, ordezkari-organismo gorenaren baitako ordezkari-baldintza eta -proportzioak gorde behar dira, horretarako proportziozko botoa ezarri ahal izango dela.</p> | <p>2.- Son funciones del equipo directivo las siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Asistir al director en la adopción de criterios sobre la dirección y coordinación del centro, así como en las decisiones que tengan mayor trascendencia en lo referente a su funcionamiento.</li> <li>b) Elaborar el proyecto de gestión, el programa de actividades de formación, extraescolares y complementarias, y el programa anual de gestión, para la aprobación de todos estos por el órgano máximo de representación.</li> <li>c) Coordinar y supervisar la ejecución de los programas mencionados en el apartado anterior, e informar sobre su cumplimiento al órgano máximo de representación, al efecto de que éste apruebe la memoria anual.</li> <li>d) Elaborar el borrador de memoria anual, para su discusión por parte del órgano máximo de representación.</li> <li>e) Proponer al órgano máximo de representación el establecimiento de relaciones de colaboración con otros centros de la escuela pública vasca, así como formular propuestas para que dicho órgano las eleve, si las considera oportunas, a la Administración educativa, en orden a la suscripción de convenios con otras instituciones, con fines culturales y educativos.</li> <li>f) Organizar los equipos docentes y decidir al inicio de cada curso escolar los criterios conforme a los cuales se adscribirá al profesorado a sus actividades de acuerdo con las normas que regulan la materia.</li> </ul> <p>3.- En el desempeño de las funciones de las letras b) y d) del apartado anterior, el equipo directivo contará con la participación de una comisión delegada del órgano máximo. En los casos en que el reglamento de organización y funcionamiento prevea la existencia de la comisión permanente del órgano máximo, será encomendada a ésta la elaboración de dichos documentos.</p> <p>En ambos supuestos deberán respetarse las condiciones y proporciones de representación existentes en el órgano máximo de representación, pudiendo establecerse a este fin el sistema de voto ponderado.</p> |
|---|---|



## VII. ERANSKINA / ANEXO VII

**3/2008 Legea, ekainaren 13koa, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea bigarrenez aldatzekoa**

**Ley 3/2008, de 13 de junio, de segunda modificación de la Ley de la Escuela Pública Vasca**

**Hamargarren artikulua.**– Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 34. artikulua aldatzen da, eta aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«34. artikulua.– Zuzendariari dagokio:

a) Ikastetxearen ordezkari izatea, ikastetxean hezkuntza Administrazioa ordezkatzeko, eta Administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.

b) Ikastetxearen jarduera guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.

c) Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntzaberrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.

d) Legeen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betetzea bermatzea.

e) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.

f) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea, gatazka konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen arandia beteta, gai honetan ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe. Horretarako, ikastetxeetan gatazka konpontzeko prozedurak bizkortzea sustatuko da.

g) Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzak bultzatzea, eta eskola-giroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketa-ohiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze aldera.

h) Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.

i) Ikastetxeko ordezkari-organorenari eta irakasleen klaustroaren egintza akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea, egintza-bilkura horiek zuzentzea eta aipatutako erakundeek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea eta betetzen diren zaintzea.

**Artículo décimo.**– Se modifica el artículo 34 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, que queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 34.– Corresponde al director o directora:

a) Ostentar la representación del centro, representar a la Administración educativa en el mismo y hacerle llegar a ésta los planteamientos, aspiraciones y necesidades de la comunidad educativa.

b) Dirigir y coordinar todas las actividades del centro, sin perjuicio de las competencias atribuidas al claustro de profesoras y profesores y al órgano máximo de representación del centro.

c) Ejercer la dirección pedagógica, promover la innovación educativa e impulsar planes para la consecución de los objetivos del proyecto educativo del centro.

d) Garantizar el cumplimiento de las leyes y demás disposiciones vigentes.

e) Ejercer la jefatura de todo el personal adscrito al centro.

f) Favorecer la convivencia en el centro, garantizar la mediación en la resolución de los conflictos e imponer las medidas correctoras que correspondan a los alumnos y alumnas en cumplimiento de la normativa vigente, sin perjuicio de las competencias que, en este tema tenga atribuidas el órgano máximo de representación del centro. A tal fin se promoverá la agilización de los procedimientos para la resolución de los conflictos en los centros.

g) Impulsar la colaboración con las familias, con instituciones y con organismos que faciliten la relación del centro con el entorno, y fomentar un clima escolar que favorezca el estudio y el desarrollo de cuantas actuaciones propicien una formación integral en conocimientos y valores de las alumnas y alumnos.

h) Impulsar las evaluaciones internas del centro y colaborar en las evaluaciones externas y en la evaluación del profesorado.

i) Convocar y presidir los actos académicos y las sesiones del órgano máximo de representación y del claustro de profesores y profesoras del centro y ejecutar y velar por el cumplimiento de los acuerdos adoptados por dichos órganos en el ámbito de sus competencias.



<p>j) Lege honen 63. atalak aipatzen dituen obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioak egitea, gastuak baimentzea ikastetxearen urteko kudeaketa-programarekin bat etorritz, ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtagiriei eta dokumentuei oniritzia ematea, hori guztia araudi bidez ezarritakoari jarraiki.</p> <p>k) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailari ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzea, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkari-organorenari jakinarazi ondoren.</p> <p>l) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen antolaketa eta jardunbiderako erregelamenduak ezartzen dizkionak».</p>	<p>j) Realizar las contrataciones de obras, servicios y suministros a los que se refiere el artículo 63 de la presente ley, así como autorizar los gastos de acuerdo con el programa anual de gestión del centro, ordenar los pagos y visar las certificaciones y documentos oficiales del centro, todo ello de acuerdo con el procedimiento que reglamentariamente se establezca.</p> <p>k) Proponer al departamento competente en materia educativa el nombramiento y cese de los otros miembros del equipo directivo del centro, previa información al claustro de profesoras y profesores y al órgano máximo de representación del centro.</p> <p>l) Cualesquiera otras que le sean encomendadas por el departamento competente en materia educativa, las que se le atribuyan por otras normas y las que se le asignen en el reglamento de organización y funcionamiento del centro.</p>
--	--



## VIII. ERANSKINA / ANEXO VIII

**IKASKETA-BURUAREN ETA IDAZKARIAREN EGITEKOAK****FUNCIONES DEL JEFE O JEFA DE ESTUDIOS Y DEL SECRETARIO O SECRETARIA****41. atala.-**

Ikasketa-burua da ikasketak-proiektua eta irakaskuntza-ihardueren egitaraua koordinatu eta gauzatzen direla zaintzeko ardura duen organoa. Ikasketeko zuzendaritza-taldeak onartutako irizpideekin bat etorriz ondorengo egitekoak ditu:

- a) Irakaskuntzako iharduerak koordinatzea.
- b) Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- c) Irakasle bakoitzari ikasketeko gela bat edo gehiago izendatzea, 36.2.f) atalean araututakoari jarraiki.
- d) Arauek eta ikasketxearen antolakuntza- eta iharduera-araudiak aitor diezazkioten gainerako egitekoak.

**42. atala.-**

Idazkariak ondorengo egitekoak izango ditu:

- a) Ordezkaritza-organoren, ikasketeko zuzendaritza-taldearen eta irakasle-klaustroaren bilkuretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako lehendakariak ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.
- b) Aktak, espedienteak eta ikasketxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea. Ikasketeko irakas-baliabideak zaintzea.
- c) Zuzendariaren oneritziak, ikasketxearen egintza, erabaki, hitzarmen, aurrekin, liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.
- d) Arauek eta ikasketxearen antolakuntza- eta iharduera-araudiak aitor diezazkioten gainerako egitekoak.

**Artículo 41.-**

El jefe de estudios es el órgano encargado de coordinar y vigilar directamente la ejecución del proyecto curricular y del programa de actividades docentes, correspondiéndole las siguientes funciones, de conformidad con los criterios aprobados por el equipo directivo del centro:

- a) Coordinar las actividades de carácter académico.
- b) Confeccionar los horarios académicos y vigilar su cumplimiento.
- c) Asignar a cada profesor a una unidad o unidades del centro, conforme a lo dispuesto en el artículo 36.2.f).
- d) Las funciones que las disposiciones normativas y el reglamento de organización y funcionamiento del centro le encomienden.

**Artículo 42.-**

El secretario tendrá las siguientes funciones:

- a) La preparación de los asuntos que hayan de ser incluidos en el orden del día de las sesiones del órgano máximo de representación, del equipo directivo del centro y del claustro, de conformidad con lo que establezca el presidente de dichos órganos. Y levantar acta de las sesiones de estos órganos.
- b) Custodiar las actas, los expedientes y la documentación propia del centro, y tenerla a disposición de sus órganos. Custodiar el material didáctico del centro.
- c) Certificar, con el visto bueno del director, todos los actos o resoluciones y los acuerdos del centro, así como los antecedentes, libros y documentos propios del centro.
- d) Las funciones que las disposiciones normativas y el reglamento de organización y funcionamiento del centro le encomienden.

## IX ERANSKINA

### ORIENTABIDE-DEPARTAMENTUA

#### **Orientabide Departamentua sortzea**

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eratuko da orientabide-departamentua, betiere gutxienez hiru kidekoa denean. Honako irakasle hauek osatuko dute departamentu hori:

- 1.- Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleek, horietako batek nahitaez departamentuko burutza izan beharko duena.
- 2.- Curriculum Anitzeko taldeetako eta Hezkuntzan Berariaz Esku hartzeko proiektuetako irakasle arduradunak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.
- 3.- Pedagogia Teraupetikoko maisu-maistra adituak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.
- 4.- Zereginen Ikaskuntzarako Geletako irakasle arduradunak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.

#### **Orientabide-departamentuaren egitekoak**

Hona hemen orientabide-departamentuaren egiteko nagusia: irakasleekin parte hartzea, animatzea, aholkuak ematea eta elkarrekin jardutea ikastetxeetako hezkuntza parte hartzearen erabaki esparru desberdinetan, hala nola, zuzendaritza taldeak, batzorde pedagogikoak, departamentu didaktikoak, irakaskuntza taldeak, tutoretzak, irakasleak... eta lankidetzaren ematea proiektuen eraikuntza, ebaluazioaren diseinu, esku hartzeko irizpide eta, azken batean, ikasleen hezkuntza-orientabide egitekoan.

Helburu hori betetzeko, honako hauek bete behar dira gutxienez:

- a) Kide bakoitzari dagozkion egitekoak koordinatzea.
- b) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitean parte hartzea.
- c) Ikastetxeko Orientabide Plan eta Tutoretza Planaren burutzapen eta aplikazioaren jarraipena egitea, departamentuaren urteko memorian jasota.
- d) Orientabide pertsonal, akademiko edo lanekoa koordinatzea beste administrazio batzuekin edo gizarte inguruko erakunde aginpidedunekin (udaleko gizarte ongizatea, esaterako).
- e) Bokaziozko orientabide prozesuak diseinatzea jardura egokiek, ikasleen arteko berdintasuna sustatuz euren lanbide etorkizuna hautatzerakoan.

Orientabide-departamentua osatzen duten irakasle guztiek egiteko komunak dituzte taldekideak direnez; hala ere, banan-banan berariazko egitekoak egokitu dakizkieke.

#### **Orientatzailearen egitekoak**

Orientabidea ezin da banandu hezkuntza jardura multzotik eta, ildo horretan, irakasle guztiei dagokie, euren irakaskuntza egitekoen zati baita. Hala ere, Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleei (orientatzaileak) berariazko erantzunkizuna eman ahal zaie gai horretan.

Honako egiteko hauek izango dituzte, besteak beste, orientatzaileek:

- a) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitea, zuzendaritza taldearen ikuskaritzapean.



- b) Aholkuak ematea eta koordinatzea irakasleak tutoretza lanetan, tutoreekin jardunez taldean zein banaka. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako tutoreekin orientabide lan sakonagoa egingo da, kurtso horretako ikasleei orientabide akademiko-profesionala ematekotan.
- c) Ikastetxeko batzorde pedagogikoarekin lankidetzat izatea, proposamenak eta jarduteko planak aurkeztuz departamentu didaktiko desberdinak eta irakasle taldeak koordinatzeko.
- d) Bilerak egitea aldian-aldian irakasle taldeekin, aztertu eta parte hartzeko ikasteko prozesuen hobekuntzan jakintza arlo desberdinetan.
- e) Taldeko tutorearekin eta irakasle taldeekin aztertzea ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak eta aholkuak ematea hezkuntza indartzeko neurri eta, hala badagokio, curriculum egokitzapen egokienei buruz.
- f) Bere gain hartzea ikastetxeko ikasleen orientabide pertsonal, akademiko eta lanekoa arreta pertsonalaren bidez.
- g) Ikastetxean sortu ahal diren jokabide eta elkarbizitza arazoei aurre hartu eta konponbidea ematen laguntzea.
- h) Bere espezialitatearekin zerikusia duten irakasgaiak ematea, hala behar izanez gero.
- i) Curriculum anitzeko gela, zereginen ikaskuntzarako gela eta hezkuntza premia bereziko ikasleei arreta emateko gela jarraipena egitea.

Berriazko Lanbide-Heziketa ematen diren ikastetxeetan orientatzaileek, tutore eta ikastetxearen beste sailekin batera, ondorengoak bultzatuko dituzte:

- Heziketa-zikloetako aukera bokazional egitarauak, egitarau hauek aurreiritzi sexistarik gabeko izango direlarik, tradizioz gizona-koentzatat izan diren zikloetan emakumezkoen sarrera bereziki bultzatuz eta ikasleak datozen ikastetxeekin harremanetan egongo direla.
- Unibertsitate orientazio egitasmoak, aholku prozesu egokien bidez, goi-mailako zikloak burutzen dituzten ikasleentzat.
- Tutoretza eta Orientazio ekintza-planak, ikasleen integrazio akademikoa, pertsonala eta profesionala lagunduz, eskola-porrotaren prebentzioari arreta berezia ematen eta ahal den neurrian banakako jarraipena egiten.
- Lan munduan sartzen diren ikasleen integrazioaren jarraipenaren koordinazioa, Ikastetxearen beste zerbitzu eta sailekiko elkarlanean (Langai, Lantokiko Praktika, e.a.), autoenplegua bultzatuz, laneratzeko jarraibideak, e.a.
- Ikastetxe, talde eta hala eskatzen duten pertsonen emateko den heziketa-zikloei buruzko informazioa eta zabalbidearen koordinazioa, ikastetxe beraren sailekiko elkarlanean, mintzaldien bidez, kontsulta partikularrei banakako erantzunak emanez, e.a.

Urteko planean orientabide eta kurtsoari laguntzeko plana sartuko da eta, egoki irizten bazaio, departamentu edo irakaskuntza taldeen bidez garatu nahi den gaiarekin zerikusia duten berriazko proiektuak (prestakuntza, koordinazio, agiri edo materialak egiteko...).

Ikasleei DBHko 2. zikloan zehar jakinaraziko zaie zein aukera duten eskola eta lanbide aldetik etapa hori bukatutakoan, egin nahi duten batxilergo edo erdi-mailako heziketa-zikloaren ibilbidea hautatzean behar bezalako erabakia har dezaten. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak materialak egingo ditu berriaz DBHko 4. mailako irakasleentzat, euren ikasleei laguntzan emateko eskola eta lanbide aldetik bideratzerakoan. Tutoreak, etapako azken emaitzekin batera aholku orientatzailea emango die.

Era berean, Batxilergoan zehar ikasleei jakinaraziko zaie zer aukera daukaten unibertsitate eta goi-mailako Lanbide Heziketa egiteko, erabaki zuzena har dezaten.

Ikasketaburuak orientatzailearen egitekoa erraztuko du ikastetxeko tutoreekin izan behar duen lanean.

### **Psikologia eta Pedagogiako irakasleen ordutegia**

Psikologia eta Pedagogiako irakasleek ordutegi jakin bat bete behar dute, ikastetxeko gainerako irakasleek dutenaren modukoa dena, hain zuzen ere. Alegia, asteko 30 orduko ordutegia dute, eta ordu horietatik 23 ikastetxean ohiz egotekoak dira; asteko beste zazpiak, hilabetean zenbatuko direnak, berriz, ikastetxean ohiz kanpo egotekoak dira.

30 ordu horien banaketa erabaki honen 2.1.1. azpiatalean dago zehaztuta. Banaketa hori berdin-berdina izango da ikastetxeko gainerako irakasleen kasuan ere. Psikologia eta Pedagogiako irakasleen 17 irakastorduen barruan, ordea, ematen dituzten eskola-orduez gain, orientazio-jarduerei propio eskainitako orduak ere zenbatuko dira.

## X. ERANSKINA

### SAILAK ETA ZIKLO-TALDEAK

#### 1. SAILAK

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan bi motako sailak eratu ahal izango dira: sail didaktikoak eta sail ez-didaktikoak, hala nola orientabide-saila eta ikastetxeak, bertako irakasleen antolaketa eta koordinazio pedagogikoa gauzatzeko, egoki irizten dion beste edozein.

Koordinazio didaktikoaren sailak dagozkien irakasgaien edo moduluen irakaskuntza bereziak antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Hau da, arduradun edo buru baten zuzendaritzapean, alor edo irakasgai bera irakasten duten irakasleen arteko nahiz antzeko alorrek edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea dute xede; horregatik, talde horien zeregina eta egiten duten lana hori osatzen duten kide guztien ardura da.

#### Sailak eratzea

##### A) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik ematen duten ikastetxeetan

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik ematen duten ikastetxeetan, irakasleen klaustroaren proposamena aintzat hartuta, zuzendaritza-taldeak ikastetxean egongo diren sailak zehaztuko ditu, ikastetxearen ikasketa-proiektuari jarraiki; gero, erabaki horren berri emango dio Ordezkaritza Organo Nagusiari.

Ikastetxeko sailak eratzeko proposamena lantzeko garaian, klaustroak nahitaez bete beharko ditu arau hauek:

- 1.- Eskola-orduren bat ematen duten ikastetxeko irakasle guztiek sail didaktikoren bateko kide izan beharko dute.
- 2.- Ezein irakaslek ezingo du sail didaktiko bat baino gehiagoko kide izan. Irakasleren batek bi sail didaktiko edo gehiagori dagozkien jakintzagaiak ematen baditu, ordu-kopuru handiena ematen duen jakintzagaiei dagokien sailekoa bakarrik izango da, nahiz eta ematen dituen gainontzeko jakintzagaiei dagozkien beste sailen bileretara bertaratu eta bertako lanetan eta erabakietan parte hartu ahal izango duen.
- 3.- Ordainsari osagarria kobratzeko eskubidea izango duten buruak dituzten sailen gehienezko kopurua ikastetxeko irakasle-kopuruak ezarriko du, ondoko taularen arabera:

IKASTETXEKO IRAKASLE-KOPURUA	GEHIENEZKO SAIL-KOPURUA
13 irakasletik behera	3
13tik 16ra irakasle	4
17tik 20ra irakasle	5
21etik 24ra irakasle	6
25tik 28ra irakasle	7
29tik 32ra irakasle	8
33tik 36ra irakasle	9

37tik 40ra irakasle	10
41etik 45era irakasle	11
46tik 50era irakasle	12
51tik 55era irakasle	13
56tik 60ra irakasle	14
61etik 65era irakasle	15
66tik 70era irakasle	16
71tik 80ra irakasle	17
81etik 90era irakasle	18
91tik 100ra irakasle	19
100 irakasletik gora	20

4.- Ikastetxeko irakasle-kopurua 13tik beherakoa izanez gero, ondoko sailak eratzea proposatzen da:

- a) Hizkuntzen saila; Gaztelera eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak arloetako irakasleek osaturik.
- b) Zientzien saila; Matematika, Natur Zientziak eta Teknologia arloetako irakasleek osaturik.
- c) Giza Zientzien saila; Gizarte-Zientziak, Geografia eta Historia, Gorputz-Hezkuntza, Plastika eta Ikus-Hezkuntza eta Musika arloetako irakasleek osaturik.

5.- Ikastetxeko sailak eratzeko proposamena onartu ondoren, zuzendariak dagokion zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzara bidaliko du, proposamenak goian zehaztutako baldintzak betetzen dituen egiaztatzeko. Baldintzak betetzen baditu, ikuskaritzak oniritzia emango dio proposamenari, eta, gero, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du, dagozkion ekonomia- eta administrazio-ondorioak izan ditzan.

6.- Ikastetxeak, bere autonomia erabiliz, bertako Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegian jaso ahal izango du 3. puntuaren ezarritako taulan zehaztutakoak baino sail gehiago, edo koordinazio pedagogikoa gauzatuko duten beste organo batzuk eratzea. Halere, beste sail edo organo horietako Buruek ez dute, inola ere, ordainsari osagarriak jasotzeko eskubiderik izango.

## **B) Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeak**

Ikastetxea antolatu eta koordinatzeko, bere AJAn aurreikusita dauden adina sail ezarri ahal izango ditu. Dena dela, sailaren buruaren ordainketari dagokionez, ikastetxeek honako didaktika-sailak bakarrik eratzeko eskubidea izango dute, **betiere espezialitate horretako berariazko gutxienez bi irakasle baldin badaude edo baldin eta ikastetxeak zehaztutako baldintzak betetzen baditu:**

- 1.- Gaztelania eta Literatura saila.
- 2.- Euskara eta Literatura saila.
- 3.- Ingelesera saila.
- 4.- Frantses saila.
- 5.- Aleman saila.
- 6.- Latin saila.
- 7.- Greziera saila.
- 8.- Geografia eta Historia saila.

- 9.- Filosofia saila.
- 10.- Erljio saila.
- 11.- Gorputz Hezkuntzako saila.
- 12.- Matematika saila.
- 13.- Fisika eta Kimika saila.
- 14.- Biologia eta Geologia saila.
- 15.- Marrazketa saila.
16. Teknologia Orokorreko saila.
- 17.- Musika saila.
- 18.- Ekonomia saila.
- 19.- Lan-Prestakuntza eta Orientabidea saila.

20.- Lanbide-arlo bakoitzaren berriazko saila, arlo horretako modulu eta prestakuntza-zikloei dagozkien espezialitateetako irakasleez osatuak. "Gorputz eta Kirol-Ekintzak" arloko irakasleek eta "Gorputz Hezkuntza" espezialitateko irakasleek sail bakar bat osatuko dute

Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza irakasten duten ikastetxeetako sailak eratzekoan honako arau hauek bete beharko dira:

- 1.- Ikastorduren bat ematen duten ikastetxeko irakasle guztiek didaktika-sailen batekoak izan behar dute.
- 2.- Irakasle batek ezingo du bi didaktika-sailetakoa izan. Irakasle batek bi didaktika-saili edo gehiagori dagozkien jakintzagaiak irakasten baditu, ordu gehien ematen dituen jakintzagaiari dagokion didaktika-sailetakoa izango da; hala ere, ematen dituen beste jakintzagaien sailetako bileretara joan ahal izango du eta haiei dagozkien lan eta erabakietan parte hartu ahal izango du.
- 3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak irakasten duten arloari dagokion didaktika-sailari atxikita egongo dira. Berezi, Fisika/Kimikako eta Biologia/Geologiako sail bereziak dauden ikastetxeetan, Natur zientzien arloko irakasleek sail horietako batean atxikitzea hautatuko dute; hala ere, beste saileko bilera eta lanetan parte hartu ahal izango dute. Gauza bera gertatuko da Kultura Klasikoko irakasleekin Latineko eta Grezierako sail bereziak dituzten ikastetxeetan.
- 4.- Ikastetxean berriaz espezialitate batekoak diren bi irakasle ez daudenean eta, beraz, espezialitate horretarako sail berezirik sortu ezin denean, antzeko bi espezialitate edo gehiagok osatutako sailak sortuko dira; sail horiek espezialitate horietako berriazko gutxienez bi irakasleez osatuta egon behar dute.
- 5.- Aurreko arauekin bat etorritik sortzen diren sailez gain, ikastetxeek didaktikakoak ez diren beste bi sail sortzeko eskubidea izango dute. Sail horien artean Ekipoen Mantenimenduko saila edo komeni diren beste sail batzuk sortu ahal izango dira.
- 6.- Ikastetxeko sailak (didaktikoak eta ez didaktikoak) eratzeko proposamena zuzendaritza-taldeak hartuko du, eta ikastetxeko zuzendariak zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzara bidaliko du.

Proposamenean didaktika-sail bakoitza osatzen duten ikastetxeko irakasleen izena adierazi beharko da, bai eta sail bakoitzeko buruaren izena ere. Ikuskaritzak proposamenak beharrezko eskakizunak betetzen dituen aztertuko du eta, hala bada, ontzat emango du eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du, dagozkion eragin ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.

### **Saileko bilerak**

- Elkarrekin bildu daitezten, beren ordutegietan gutxienez astean ordu bat izango dute sailkide guztiek bilera hauetarako gordea. Ikasketa-Buruak kontuan hartu beharko du hori ordutegiak egiterakoan. Bilera hauetara etortzea derrigorrezkoa da sailkide guztientzat.

- Ekainean, saileko kideak bildu beharko dira lan-plana, lorpenak eta hurrengo urterako beharrezko diren zuzenketak aztertzeko. Gero, sail bakoitzari buruzko informazio-txostena ikastetxearen urteko planaren memorian sartuko da.

### **Sail didaktikoaren bilerak eta zereginak**

Sail Didaktikoei dagokie ondoko zereginak betetzea:

- a) Espezialitateak berezkoak dituen arlo edo jakintzagaien programazioa lantzea, curriculumaz zehaztuz eta zikloka eta ikasturteka banatuz, hala nola ebaluazio-irizpideak zehaztuz.
- b) Sail bakoitzak bere espezialitatearekin lotutako aukerakotasun-espazioko jakintzagaiak proposatzea.
- c) Nahikotasun-probak, proba gehigarriak eta apartekoak lantzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.
- d) Bere espezialitatearekin zerikusia duten prestakuntza edo berrikuntzarako proiektuak edo bitartekoak lantzeko proiektuak proposatzea.
- e) Emaidza akademikoak eta programaketak betetze-maila aztertzea eta baloratzea.

### **Saileko burutza**

Sailaren lana kide guztien lana da, eta, aurreko urtean gainditu ez dutenentzako frogak prestatzea eta zuzentzea, edo estatistikak egitea, eta abar, Saileko guztiei dagozkie.

Beti programakuntza ofizialak kontutan hartu behar badira ere, Sailak badu, lan plan horren barruan, programa horiek egokitze edo aldatzeko aukera. Aldaketa guztiak Sailaren Akta-liburuan jasota geratu behar dira. Egindako aldaketek curriculumaren gutxienezko irakaskuntzak bete ditzaten zainduko du Ikuskaritzak.

Saileko buruaren ardura da Sailaren funtzionamendua, eta honelakoak dira bere lanak:

- a) Sailaren lana zuzentzea eta koordinatzea.
- b) Bilerak antolatzea, prestatzea eta zuzentzea.
- c) Programaketaren edukiak eta gutxienezko eskakizun-maila bete daitezten arduratzea, ohiko bideetatik kurtsoa gainditu ez duten guztientzako nahikotasun-froga berdina segurtatuz.
- d) Sailak eginiko nahikotasun-frogen eta froga gehigarri eta apartekoen kalifikapenak ikustatzea.
- e) Sailkideen lanak banatzea.
- f) Ikasketa-Buruarekin komunikatzea, Sailaren jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatzeko eta aurreikusitako lan-egitasmoaren garapenari buruzko edo Sailean ikusitako edozein anomaliari buruzko informazioa emateko.
- g) Bileretako agiriak egiten direla bermatzea.
- h) Ikastetxeko AJAk zehaztu dituenak.

Saileko buruak programaketak urriaren 30a baino lehenago eman behar dizkio ikastetxearen zuzendariari, eta ikastetxean bertan geldituko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura. Gainera programaketa laburtuak ere emango ditu, zuzendariak Ikuskaritzako Lurraldeburuari bidaliko dizkio,

eta honek ikastetxeko erreferentziako ikuskariari helaraziko dizkio. Programaketa osoak eta laburtuak Ikastetxearen Urteko Planean sartuko dira. Halaber, kopia bana sailkide guztiei emango zaie.

### **Saileko buruaren hautaketa**

Zuzendariak hautatuko du saileko burua, betiere, ondoko irizpideak kontuan hartuta:

- 1.- Saileko buruak sail horretako irakaslea izan beharko du, eta ezin izango du bestelako zuzendaritza-kargurik izan.
- 2.- Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko irakasleen artean hautatuko da saileko burua, salbu eta bestelako zuzendaritza-kargurik ez duen saileko inork betebeharrak hori betetzen ez duenean. Ezin izendatuko da Saileko buru, ezein kasutan, Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegokoa ez den irakaslerik, Sailean Kidego horretakoa den eta beste zuzendaritza-kargurik betetzen ez duen beste irakasleren bat baldin badago.
- 3.- Goragoko irizpideei men eginda, betiere, ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian ezarritakoa hartuko da kontuan saileko burua hautatzeko orduan.
- 4.- Oraindik Antolamendu eta Jarduera Araudirik (AJA) ez duten ikastetxeetan, edo AJAk saileko burua hautatzeko modurik aurreikusten ez duenean, zuzendariak hautatuko du saileko burua, saileko kideen proposamenez. Sailak ez badu proposamenik egiten, ikastetxeko zuzendariak bere kasa hartuko du erabakia. Nolanahi ere, lehentasuna izango dute beti Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko irakasleek, eta halakorik ezean, Bigarren Hezkuntzako Kidegoko irakasleek.

Behin izendatu eta gero ezin izango dio karguari uko egin, hartara, ikasturte hasierarako saileko burutza guztiak beterik egongo dira.

### **Saileko dokumentazioa**

- Saileko dokumentazio osoa Akta-liburu batean jasoko da eta ikastetxeko pertsona bakarreko nahiz elkargoko organoentzat eta Ikuskaritzarentzat gertu egongo da.
- Saileko bilera bakoitzeko bilera-agiri bat beteko da.
- Bilera-agiriak, bertaratutako guztiek izenpetu beharko dituzte eta Saileko buruak esandako irakasleak idatziko ditu.
- Azken ebaluazioa egin ondoren, ikasturte-hasierako programazioa eta horren betetze-maila aztertuko dira; halaber, bete ez diren arloak aztertu eta egiaztatuko dira, eta hurrengo ikasturterako hobekuntzak proposatuko dira.
- Erabaki honetan bertan "Kalifikapenetan erreklamazioak egiteko eskubidea" atalean zehaztutakoaren arabera gorde behar dira ikasleek egindako azterketa eta ariketak.

### **ZIKLO-TALDEAK**

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan, haien ezaugarrien arabera, ziklo berean lan egiten duten irakasleen lantaldeak eratu daitezke, irakasle horien arteko koordinazioa eta pedagogia-lana hobetzeko.

Ziklo-Taldeek ziklo horietako irakasleen koordinazio didaktikoa egingo dute.

Arduradun edo koordinatzaile baten zuzendaritzapean, talde horien helburua ziklo berean ikasgai ezberdinak irakasten dituzten arteko koordinazioa bermatzea da (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).

Talde horien lana eta bertan egindako lanak kide guztien ardura dira.

### **Zikloko koordinatzaileak**

Haur Hezkuntzako irakasle-talde bakoitza eta Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza lau irakasle baino gehiagoz osatuta badago, zikloko koordinatzaile bat edukiko du.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dituen ikastetxe batean, lau koordinatzaile egongo dira gehienez: bat Haur Hezkuntzarako, eta beste hiru, bakoitza Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako. Hala ere, 2 eta 5 urte arteko Haur Hezkuntzan hiru gela ala gehiago baldin badaude, ikastetxeak ziklo horretarako beste koordinatzaile bat eduki dezake.

Koordinatzaileak zuzendariak izendatuko ditu, beste zuzendaritza-kargurik ez duten zikloko irakasleen artean. Izendapen hori klaustroaren aktan eta EAJen zehaztu beharko da.

Halaber, Koordinatzaile horiek beren funtzioak betetzean irakasleekin egindako bilera eta ekintzak dagozkien aktetan jaso beharko dira.

Zikloko koordinatzailea zikloaren arduraduna da.

Zikloko koordinatzailearen funtzioak hauek izango dira:

- Zikloko irakasleen bilerak antolatu, deitu eta zuzentzea.
- Zikloko Curriculum Proiektuaren osaketan parte hartzea eta irakasleek egindako proposamenak helaraztea.
- Ikastetxeko Pedagogia-Batzordearen kide izatea.
- Zikloko ikasleen tutoretza-funtzioak koordinatzea.
- Zikloko irakaskuntza Curriculum Proiektuaren arabera koordinatzea.
- Jarduera osagarriak koordinatzea.
- Bere eskumenen barne, Ikasketa-Buruak agindutako beste lanak egitea, bereziki hezkuntza-errefortzua, curriculum a egokitzea eta jarduera osagarriak antolatzea.

### **Zikloko taldearen bilera eta lanak**

Ikastetxeko ordutegian, astean behin edo bi astean behin, zikloko taldeko kide guztiak biltzeko denbora aurreikusi beharko da. Ikasketa-Buruak kontuan hartu beharko du hori ordutegiak egiterakoan. Bilera hauetara etortzea derrigorrezkoa da zikloko taldeko kide guztientzat.

Ikastetxeko AJAn zehaztutakoaren arabera, Zikloko taldeek ikastetxeko antolakuntzarako tresna eta proiektuak osatzen lagunduko dute.

Zikloko taldeen lanak hauek izango dira:

- a) Ikastetxeko Ikasketa-Proiektuak zehaztutakoaren arabera, zikloan irakatsi beharreko irakasgaien programa didaktikoen osaketa koordinatzea.
- b) Ziklo bat osatzen duten ikasle-taldeentzat diseinatutako programazioen emaitzak aztertzea, eta beharrezkoa bada, programazioak aldatzea.
- c) Hezkuntza-jardueran, irakasleen irizpideak bateratzea.
- d) Zuzendaritza-Taldeari prestakuntza- edo berrikuntza-proiektuak proposatzea.
- e) Ikastetxeko proiektu eta planak osatzen laguntzea.
- f) Ikastetxeko organo eskudunek eskatutako lanak egitea.



## XI. ERANSKINA

### TUTORETZAK

#### TUTORETZAK BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

##### **Tutoreen izendapena**

Ikastetxe guztietan taldeko tutore bat egon behar da, Curriculum desberdinak eratzeko taldeetan izan ezik; talde hauetan bi tutore egongo dira. Tutorea, noski, talde horretako irakaslea izateaz gain, talde horretako ikasle guztiek ematen duten jakintzagai bateko irakaslea bada, hobeto.

Tutoreak izan daitezkeen irakasleak taldeak baino gutxiago izanez gero, bete gabeko tutoretzak bestelako karguak dituzten edo beste taldeetako tutoretza duten irakasleek hartu beharko dituzte, zaintzako orduak kentzeko aukera egongo delarik, baldin eta zaintzako ordu horiek beteta geratzen badira.

Tutoreen izendapena ikastetxeko zuzendariak egin behar du, ikasketa-buruak proposatuta. Tutoretza-plana garatzeko, tutoreek astean ordubete izango dute taldearekin egoteko DBHko 1. eta 3. mailetan.

Zuzendariak tutore-karguaz beste kargurik ez duten irakasleei beste funtzio batzuk izendatuko dizkie, baldin eta tutoretza-talderik izendatuta ez badute.

##### **Tutoreen eginkizunak**

Tutore bakoitzak bere taldeko ikasleak orientatu eta talde horri eskolak ematen dizkieten irakasleak koordinatu behar ditu, bai eta ikasleen familiei guztiaren berri eman ere. Zehazki, honako zeregin hauek beteko ditu:

- Bere ikasle-taldeari egokitzen zaizkion irakasleak koordinatzea, bai programazio eta ebaluazioari dagokionean, bai irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar ematen diren banakako naiz orotarako egoerak aztertzeko unean ere. Tutoreek ikasturtean zehar, ebaluazio-bileretatik kanpo, hiru bilera bederen eduki behar dituzte bere taldeko irakasleekin. Tutoreak bilera hauen berri ikasketa-buruari emango dio eta bilera horien deialdia egingo du.
- Ikasleak orientatzea, alderdi pertsonal, akademiko eta profesionaletan; beharrezkoa zaienean, ikastetxeko eta inguruetako orientazio-zerbitzuen laguntza jasoz.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa amaituta, eta irakasle-taldearen informazioa jaso ondoren, orientazio-aholkuak idatzi beharko ditu.
- Irakasleei eta hauen gurasoei eskolako jardueri buruzko informazioa ematea. Honek ez du kaltetuko, gurasoek zuzenean irakasleengana edo eta ikastetxeko gobernu organoetara jotzeko duten eskubidea. Ikastetxeak esango die familiei dagokien tutoreen asteko bisita-ordutegia.
- Ebaluazio-bilerak koordinatzea, ikasleen notak ipini eta beraiei ematea, jakintzagaien estatistikak eta ikasketa-buruak eskatutako datuak eta bere tutoretza-lanari dagozkion ikasleen dokumentazioa betetzea.
- Beren taldeko/ikasgelako ikasleek galdutako eskola-orduen jarraipena egitea, eta falta horiek ikastetxeko ikasketa-buruari eta familiei jakinaraztea.

- Eginkizun hauek ezarriz edo garatuz ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudiak esleitzen dizkion gainontzekoak.

## **TUTORETZAK HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN**

### **Tutoreen izendapena**

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, talde didaktiko bakoitzeko tutore bat egon beharko da. Talde didaktikotzat jotzen da Hezkuntzako Lurraldeko Ordezkaritza bakoitzean urtero egindako plangintzat zehaztutako talde-gelak.

